

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2026ko ekainaren 27tik uztailaren 3rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2026/06/27

- **GORTE NAGUSIAK.** Presako neurriak. **Ebazpena, 2026ko ekainaren 25ekoa,** Diputatuen Kongresuarena, 2026ko udako bidaietan gazteek garraio publikoa erabil dezatela sustatzeko neurriak arautzeko ekainaren 9ko 14/2026 Errege Lege Dekretua baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agindua ematen duena. **13943 Xedapena- 1 or.**
- **Ebazpena, 2026ko ekainaren 25ekoa,** Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen baita Estatuko sektore publiko instituzionala osatzen duten organo eta erakundeei ezohiko kreditu-eragiketak baimentzeari buruzko ekainaren 9ko 15/2026 Errege Lege Dekretua indargabetzeko erabakiaren argitalpena. **13944 Xedapena- 1 or.**
- **OGASUN MINISTERIOA.** Jurisdikzio ez-kooperatiboak. **HAC/649/2026 Agindua, ekainaren 21ekoa,** zeinaren bidez aldatzen baita HFP/115/2023 Agindua, otsailaren 9koa, jurisdikzio ez-kooperatibotzat jotako herrialdeak eta lurraldeak eta kaltegarritzat hartutako zerga-araubideak zehazten dituen. **13946 Xedapena- 3 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA.** Gazteak. **4/2026 Legea, ekainaren 11koa,** Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legea aldatzekoa. **13950 Xedapena- 4 or.**

2026/06/29

- **OGASUN MINISTERIOA.** Zergak. **HAC/652/2026 Agindua, ekainaren 26koa,** zeinaren medioz aldatzen baita ekainaren 9ko HFP/587/2023 Agindua, 718. eredua — «Fortuna Handien Aldi Baterako Solidaritate Zerga»— onestekoa, eta hura aurkezteko lekua, modua eta epeak, kondizioak eta prozedura zehaztekoa. **14011 Xedapena- 7 or.**

2026/06/30

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** Presako neurriak. **18/2026 Errege Lege Dekretua, ekainaren 29koa,** zeinaren bidez Ekialde Hurbileko Krisiari Erantzuteko Plan Integralaren esparruan neurri jakin batzuk hartzen baitira **14112 Xedapena- 53 or.**

- **19/2026 Errege Lege Dekretua, ekainaren 29koa**, Balear Uharteetako Administrazio Publikoetako langile lan-kontratudunen erretiro partzial aurreratuaren eta uharte-osagarriaren arloko presako neurriei buruzkoa. [14113 Xedapena- 9 or.](#)
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA.** Enplegua. **PJC/654/2026 Agindua, ekainaren 29koa**, Ministro Kontseiluaren erabaki hau argitaratzen duena: 2026ko ekainaren 29ko Erabakia, zeinaz enplegua egonkortzeko eta malgutasunerako RED mekanismoaren bigarren luzapena onesten baita motordun ibilgailuen fabrikazioaren sektorean. Mekanismo hori Ministro Kontseiluaren 2024ko abenduaren 23ko erabakiaren bidez aktibatu zen, Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren —urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoaren— 47 bis artikuluari jarraikiz. [14115 Xedapena 4 or.](#)

2026/07/02

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Hauteskunde-araubide orokorra.** 2/2026 Lege Organikoa, ekainaren 30ekoa, Hauteskunde Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzekoa, Konstituzioaren 69. artikulua 3. apartatuaren erreformara egokitzeko. [14323 Xedapena- 2 or.](#)
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Oliba-olioa. Mahats-ekoizpena.** Ebazpena, 2026ko ekainaren 22koa, Nekazaritzako Ekoizpen eta Merkatuaren Zuzendaritza Nagusiarena, 2022ko irailaren 27ko Ebazpena aldatzen duena; horren medioz, bidezko operadoretzat hartzeko irizpide teknikoak eta baliabide elektronikoak —zereal, hazi oleaginoso eta arrozaren izakinak jakinarazteko betebeharrak betetzekoak— ezartzen dira; betebeharrak hori honako hauek ezartzen da: batetik, Batzordearen 2022ko maiatzaren 19ko (EB) 2022/791 Exekuzio Erregelamendua, (EB) 2017/1185 Exekuzio Erregelamendua aldatzekoa; bestetik, uztailaren 13ko 861/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria (861/2018 Errege Dekretuaren bidez, ezarri egiten da oliba-olioaren eta mahai-oliben sektoreetako nahitaezko aitortzei buruzko oinarritzko araudia eta aldatu egiten da uztailaren 28ko 772/2017 Errege Dekretua, mahats-ekoizpeneko potentziala arautzekoa) [14334 Xedapena- 2 or.](#)

2026/07/03

- **OGASUN MINISTERIOA. Antolamendua. Ebazpena, 2026ko ekainaren 23koa**, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako Lehendakariaren, beste ebazpen hau aldatzen duena: Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 13koa, Aduanen eta Zerga Berezien Arloan eginkizunak antolatu eta esleitzeari buruzkoa. [14430 Xedapena- 16 or.](#)

- **Ebazpena, 2026ko ekainaren 23koa**, Zerga Administrazioako Estatu Agentziako Lehendakaritzarena, honako hau aldatzen duena: Ebazpena, 1992ko martxoaren 24koa, Finantza eta Tributuen Ikuskaritza Sailaren eskumenen esparruan eginkizunak antolatu eta Tributuen Ikuskaritzari esleitzeari buruzkoa. **14431 Xedapena- 2 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2026/07/02

- **JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN SAILA. 98/2026 DEKRETUA, ekainaren 16koa**, Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen dekretua aldatzen duena. **2972 Xedapena- 7 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2026/06/29

- **Arabako Foru Aldundia** Bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru **diputatuaren 380/2026 Foru Agindua**, ekainaren 23koa. Onespena ematea Sozietateen gaineko Zergaren eta establezimendu iraunkorren eta atzerrian eratuta egonik Arabako Lurralde Historikoan ari diren errenten egozketaren araubideko erakundeen Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioa egiteko 200 eta 220 erduei, 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako, eta eredu horiek telematikoki aurkezteko baldintza orokorreari. **1914 Xedapena-158 or.**

2026/01/07

- **Euskadiko Administrazioak. EUSKO JAURLARITZA (EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako egoitzen eta etxebizitza komunitarioen sektorearentzako hitzarmen kolektiboa (2025-2028). **1923 Xedapena- 23 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2026/06/29

- **Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako saila.** Bizkaiko Foru Aldundiaren **63/2026 FORU DEKRETUA**, ekainaren 18koa, Bizkaiko Errepideen Katalogoa eguneratzen duena **I 738 Xedapena- 14 Or**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2026/06/29

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 257/2026 Foru Agindua, ekainaren 17koa, otsailaren 17ko 86/2023 Foru Aginduaren bidez onetsitako 620 ereduaren aurkezpenaren zenbait alderdi aldatzen dituen. 4194 Xedapena- 2 or.

2026/06/30

DIPUTATU NAGUSIA

- **1/2026 Foru Araua, ekainaren 11koa,** Ondasun Higiezin Zergarena. 4082 Xedapena- 11 or.
- **2/2026 Foru Araua, ekainaren 11koa,** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzkoa. 4085 Xedapena- 29 or.

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

- **278/2026 Foru Agindua, ekainaren 24koa,** «Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga. Autolikidazioa» izena duen 490 eredu aldatzen duena. 4316 Xedapena- 2 or.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2026/07/01

- **Batzordearen (EB) 2026/1416 Exekuzio Erabakia, 2026ko ekainaren 30ekoa,** Zibersegurtasuneko Eskumenen Koaliziorako (CSC-EDIC) Europako Azpiegitura Digitalen Partzuergoa sortzekoa. 1416/2026 Xedapena- 1 or.

2026/07/02

- **Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena honako hauei: a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendu-proposamena, (EB) 2024/1689 eta (EB) 2018/1139 erregelamenduak aldatzen dituen, adimen artifizialaren arloko arau harmonizatuen —adimen artifizialari buruzko omnibus digitalen erregelamenduaren— aplikazioa sinplifikatzeari dagokionez [COM (2025) 836 azkena – 2025/0359 (KOD)]; eta b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendu-proposamena, (EB) 2016/679, (EB) 2018/1724, (EB) 2018/1725 eta (EB) 2023/2854 erregelamenduak eta 2002/58/EE, (EB) 2022/2555 eta (EB)**

2022/2557 zuzentarauak (lege-esparru digitala sinplifikatzeari dagokionez) aldatzen eta (EB) 2018/1807, (EB) 2019/1150 eta (EB) 2022/868 erregelamenduak eta (EB) 2019/1024 zuzentaraia indargabetzen dituena. 20263225 Xedapena- 7 or.

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO